

DEIALDIA: abenduak 19, asteazkena, 11:30, EUDEL, Bilbo

ELoGE 2018 Zigilua emateko ekitaldia

Udal hautagaiak: AMURRIO – BERMEO – LEGAZPI - ZAMUDIO

EUSKADIKO LAU UDAL DIRA GOBERNANTZAREN 2018KO BIKAINTASUNEKO EUROPAKO LABELA JASOTZEKO HAUTAGAI

- ELoGE Zigilua Europako Kontseiluaren tresna bat da, berariaz sortua udalek aurrera egin dezaten Gobernantza oneko eta berrikuntza demokratikoko 12 printzipiotan (etika, gardentasuna, parte-hartzea, kontu-ematea, kudeaketa finantzarioa, efikazia eta efizientzia, besteak beste).
- 2017an, EUDELeK Zigilua lortzeko hautagai ziren bederatzi udali laguntzeko lehen proiektu pilotua bultzatu zuen Euskadin. Horietako bostek lortu zuten bereizgarria aurtengo martxoan: Basauri, Ermua, Leioa (Bizkaia), Irun eta Urnieta (Gipuzkoa).
- 2018ko bigarren pilotajeon parte hartu nahi izan dute Amurriok, Bermeok, Legazpik eta Zamudiok. Hautagai moduan parte hartu ahal izateko, udalek gobernanzako 97 praktika on frogatu behar dituzte autoebaluazioko 97 adierazletan, eta beren emaitzak egiaztatu gobernu taldearekin eta oposizioarekin, bai eta herritarrekin ere, inkesten bidez.

Bilbon, 2018ko abenduaren 17an. Asteazkenean, **abenduaren 19an, 11:30etik aurrera**, **Imanol Landa** EUDELen elkarteburuak eta **Alina Tatarenko** Europako Kontseiluko ordezkariak *Gobernantzaren Bikaintasuneko Europako Zigilua*-ELoGE 2018 merezi duten Euskadiko udal berriak zein diren jakinaraziko dute. Tokiko gobernuen kalitate gorenara egiaztatzen du Europako Kontseiluko Ezagutza Zentroak (*Centre of Expertise*) bultzatutako zigilu honek, eta maila europarreko aitortza gorenara da Gobernantza Olean eta Berrikuntza Demokratikoan kalifikazio altua eskuratzen duten udalentsat.

Alina Tatarenkok azaldu duenez, Europako Bikaintasun Labela “ez da azken helburu bat, abiapuntua baizik, **pizgarri bat** udal kudeaketa efikaz eta efizienteen pixkanaka aurrera egiteko. Udalek gobernu onaren arloan eta, horrenbestez, herritarrentzako zerbitzu publikoen kalitatean **etengabeko hobekuntzako ekintza planak** implementa ditzaten bilatzen eta sustatzen du ELoGEk”.

Amurrio, Bermeo, Legazpi eta Zamudioko udalek, EUDELeK babestuta, hiru hilabete baino gehiago eman dituzte euren talde politiko eta teknikoekin lanean, Euskadin egingo den ELoGE Zigiluaren bigarren ekitaldira aurkeztu ahal izateko. Zigiluaren lehen ekitaldia Donostian egin zen aurtengo martxoaren 20an, eta, hartan, **Bizkaiko bost** udalek (Basauri, Ermua, Galdakao, Leioa eta Mungia) eta **Gipuzkoako lauk** (Beasain, Elgoibar, Irun eta Urnieta) parte hartu zuten. Horietako bostek (Basauri, Ermua, Leioa, Irun eta Urnieta) bereizgarria eskuratu zuten. Amurrio ELoGErako hautagai den **Arabako** lehen udala da.

Euskadiko udalak Europako Zigilua jasotzeko hautagai izateko **aurretiazko betebeharrak** gisa, EUDEL Europako Kontseiluak zilegitutako **eskualde plataforma** gisa akreditatu zen 2017an, Euskadiko udalen hautagaitzak babestu eta koordinatzeko.

Erakundeen arteko lankidetzaren markoan, EUDELeK **ELoGE Batzorde Betezarazlea** sortu du Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarekin **(EJ-GV) eta Foru Aldundiekin batera**. Batzorde hori arduratzen da Bikaintasun Zigiluaren deialdian parte hartzea eskatzen duten udalen proposamenei bermea emateaz.

EUDELeK egokitutako europar tresna

Bi proiektu piloturen bidez (2017 eta 2018), Europako Kontseiluaren metodologia estandarra Euskadiko tokiko errealitatearen espezifikotasunera egokitzea lortu du EUDELeK. Azken **emaitza** europar mailan definitutako Gobernantza Oneko eta berrikuntza demokratikoko [12 printzipioei](#) buruzko **autoebaluzioko 97 adierazlek** osatzen duten tresna da: **etika, gardentasuna, parte-hartzea, kontu-ematea, kudeaketa finantzario osasuntsua, efizientzia eta iraunkortasuna, Giza Eskubideak, aniztasuna eta gizarte-kohesioa, besteak beste**.



Gehigarri gisa, **herritarrei eta ordezkaritza politikoari** (governuko zein oposizioko zinegotziak) **inkestak** egiten zaizkie emaitzak egiaztatzeko, eta, horrela, erantzunetan egon daitezkeen desberdintasunei aurre egiteko behar diren neurriak hartzeko.

Euskadiko udalak Gobernantzaren abangoardian, Europan

Europako Kontseiluaren Zigilua emateko irizpideak 2010ean probatu ziren lehen aldiz, Europako berrogei bat lurralde erakundetan (Bulgaria, Norvegia, Ukraina, Belgika, Espainia eta Frantzia).

2018ko martxoan, **Basauri, Ermua, Irun, Leioa eta Urnietako** udalak ELoGE bereizgarria daukaten **Europako 200 udalen zerrenda eksklusiboan** sartu ziren.

©European Label for Governance' Excellence: [**www.coe.int/good-governance**](http://www.coe.int/good-governance)